

[Eusk/Cast] El Movimiento Pro Amnistía ante el ataque al Txoko de lxs Gudarís

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. ::
01/02/2020

Ante la decisión tomada por el Ayuntamiento de Etxarri de dismantelar Gudarién Txokoa obedeciendo a la Audiencia Nacional española

[Euskara]

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Gudarién Txokoaren aurkako erasoaren aurrean

EH Bilduk zuzentzen duen Etxarriko Udalak, Espainiako Audientzia Nazionalari men eginez, Gudarién Txokoa suntsitzeko hartutako erabakiaren aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak honakoa adierazi nahi du:

-Herri mugimenduak Gudarién Txokoa sortu zuen 2017an, Etxarriko Danbolintxuloko hariztian. Bertan harrizko oroigarri bat jarri zuen Estatu espainolak eraildako Axio Erdozia, Pello Mariñelarena eta Josu Zabala “Basajaun” gudarién izenekin. Beraien oroimenez egin zuen, baina baita eroritako gainontzeko gudari guztien oroimenez ere.

-Gudarién Txokoaren suntsipena Euskal Herriko memoriaren eta gudarién aurkako erasotzat hartzen dugu, eta baita herri mugimenduaren lana eta jardueraren aurkakoa ere. Herri honetan gertatu dena eta gertatzen denaren kontakizun erreal baten alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu guk ere. Gudarién memoriari, hots, herri honen borrokari, historian dagokion tokia emateko lanean jarraituko dugu.

-Berriz ere esan beharra dugu ez diogula inolako zilegitasunik onartzen Espainiako Audientzia Nazionalari, alde batetik okupatzaileek gure herria zigortzeko eratutako erakunde faxista delako eta, bestetik, zigortze hori aurrera eramanean Gudarién Txokoak oroitzen zituen militanteen hiltzaileak babesteko eta beste hainbaten torturatzaileei inpunitatea emateko ezinbesteko elementua izan delako.

-Azpimarratzekoa da Etxarriko Udalak gudarién aldeko monolitoa kendu izana faxistak ETak hildako Jesus Ulallar Etxarriko Alkate frankista omentzen ari ziren ordu berean. Honek gudarién aurkako umiliazioa are eta handiagoa egiten du.

-Ez ditugu onartzen EH Bilduk Gudarién Txokoa deuseztatzeko eta monolitoa lapurtzeko jartzen dituen aitzakiak. Epaitegi faxistak egindako mehatxuek ez dute justifikatzen bidegabekeria bat aurrera eramatea. Kasu honek erakusten du neurtutako irudi iraultzaile faltsuaren atzean benetan dagoena sistemaren parte den alderdi instituzional bat dela. “Desobedientzia” hitzaren esanahia aspaldi ahaztu zuten batzuek, eta bere ordeztu obedientzia iraingarri bat erakusten ari dira.

-Etxarriko Sortuk ume txiki batek idatzitakoa ematen duen agiria atera du Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduari aurpegiratzen monolitoaren alde

borrokatu ez izana, eta gure ekintzen ardura ez hartzeko ezkutatu izana leporatzen digu. Zentzu horretan gogorarazi nahi dugu 2016ko irailaren 3an, Etxarrin bertan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak erakutsi zuela desobedientziaren alde egiten duen hautua benetakoa dela. Egun horretan preso politiko erien askatasunaren aldeko manifestazioa debekatu zigun Espainiako Gobernuak Nafarroan daukan Delegazioak, eta Guardia Zibilaren oldarraldi eta ke-poteen artean, manifestazioa berdin-berdin egin genuen. Egun horretan eta Etxarrin ere, gure bi militantek, preso ohiak biak, preso erien askatasunaren aldeko 20. eguna betetzen zuten. Desobedientzia aldarrikatzen jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Euskal Herria, 2020ko otsailaren 1a.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

[Castellano]

El Movimiento Pro Amnistía ante el ataque al Txoko de lxs Gudarís

Ante la decisión tomada por el Ayuntamiento de Etxarri de dismantelar Gudarién Txokoa obedeciendo a la Audiencia Nacional española, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere expresar lo siguiente:

-Gudarién Txokoa fue creado por el movimiento popular en 2017, en el robledal de Danbolintxulo, en Etxarri. Allí colocó un monumento de piedra en recuerdo de los gudarís asesinados por el Estado español, Axio Erdozia, Pello Mariñelarena y Josu Zabala “Basajaun”. Lo hizo en su recuerdo, pero también en recuerdo del resto de gudarís caídos.

-Tomamos la destrucción de Gudarién Txokoa como un ataque a la memoria de Euskal Herria y de lxs gudarís, pero también como un ataque contra el trabajo y la actividad del movimiento popular. También nosotrxs nos reafirmamos en nuestro compromiso de seguir trabajando por un relato real de lo que ha sucedido y sigue sucediendo en nuestro pueblo. Seguiremos trabajando por dar el lugar que le corresponde en la historia a la memoria de lxs gudarís, o lo que es lo mismo, a la lucha de este pueblo.

-Otra vez debemos decir que no le reconocemos legitimidad alguna a la Audiencia Nacional española, por un lado porque es una institución fascista creada para castigar a nuestro pueblo, y por otra porque para llevar a cabo ese castigo ha sido un elemento indispensable para proteger a los asesinos de los militantes a los que recordaba Gudarién Txokoa, y para donar de impunidad a los torturadores de otrxs tantxs militantes.

-Es destacable que el Ayuntamiento de Etxarri haya quitado el monolito a la misma hora a la que los fascistas homenajearon al que fuera Alcalde franquista de Etxarri, Jesús Ulallar. Esto hace aún mayor la humillación hacia lxs gudarís.

-No aceptamos las excusas dadas por EH Bildu para destrozar Gudarién Txokoa y robar el monolito. Las amenazas del tribunal fascista no justifican que hayan llevado a cabo una injusticia. Este caso demuestra que lo que hay en realidad detrás de esa medida falsa

imagen de revolucionarios, es un partido institucional que forma parte del sistema. Hace tiempo que algunos olvidaron el significado de la palabra “desobediencia”, y en su lugar están demostrando una obediencia insultante.

-Sortu de Etxarri ha hecho público un comunicado que parece escrito por un niño pequeño, en el cuál hecha en cara al Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión el no haber peleado por defender el monolito, y nos acusa de habernos escondido para no asumir las consecuencias de nuestros actos. En ese aspecto debemos recordar que el 3 de septiembre de 2016, en el mismo Etxarri, el Movimiento Pro Amnistía demostró que su apuesta por la desobediencia es real. La Delegación que el Gobierno español tiene en Nafarroa nos prohibió la manifestación por la libertad de lxs presxs políticxs enfermxx que habíamos convocado para ese día, y la llevamos a cabo igualmente entre cargas y botes de humo de la Guardia Civil. Ese mismo día y también en Etxarri, dos de nuestros militantes, ambos ex presos, cumplían 20 días en huelga de hambre en demanda de la libertad de lxs presxs enfermxx. En adelante seguiremos reivindicando la desobediencia.

En Euskal Herria, a 1 de febrero de 2020.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-el-movimiento-pro-1>